



NPB berria

Aukeraz beteriko
mendiak



Zer aldatu da NPB berrian?	2
Zer berrikuntza daude?.....	2
Koordinazioa Europako gainerako politikekin	4
1. Zutabea: Ordainketa Zuzenak.....	4
Nahitaezko erregimenak	5
Oinarrizko ordainketa.....	5
Ordainketa berdea.....	5
Nekazari gazteak.....	6
Hautazko erregimenak.....	7
Zailtasun naturalak dituzten inguruak.....	7
Laguntza elkartua	7
Ordainketa birbanatua.....	8
Nekazari txikientzako erregimen erraztua.....	8
Merkatuen Antolakunde Bateratua	8
Merkatuaren kudeaketarako mekanismoak.....	9
Ekoizleen arteko kooperazioa.....	10
2. Zutabea: Landa Garapenerako Politika.....	11

*Informazio jarduera hau Europako Batzordearen babesarekin finantzatu da.
Euromontanak bakarrik du liburuxka honetako edukiaren erantzukizuna.*

Argitalpena: Euromontana

Egilea: Marta de la Cera (Euromontana)

Informazio gehiago: www.newcapmountain.eu

Kooperazioa, arriskuen kudeaketa, ekoizleen elkarteak, sustapena, aholkularitza teknikoak, berrikuntzarako eta ezagutzaren transmisiorako laguntza gehiago, kalitate-sistemetan parte-hartzea, inbertsioak, ... luzea da baliabideen zerrenda. Orain landako eragileei dagokie aukera huez ahalik gehien baliatzea!



Zer aldatu da NPB berrian?

2013an akordioa lortu zen Nekazaritza Politika Bateratu berrian (NPB), nekazaritza politika osoa aztertu, berriro diseinatu eta negoziatzera zuzenduriko hiru urteko lan eskeraren ondoren. Akordio berria 2015eko urtarriletik aurrera abiaraziko da eta 2020ra arte izango da indarrean.

Liburuxka honek NPB berriaren elementu nagusiak aurkezten ditu, gero Europar Batasuneko estatuak euren herrialdeen lehentasunen arabera egokituko dituztenak.

Zer berrikuntza daude?

NPB berriak elikagaien ekoizpen bideragarria, lurraldeen garapen orekatua eta baliabide naturalen kudeaketa jasangarria bermatu nahi ditu, guztia, klima-aldaketaren aurrean, nekazaritzari lehentasunezko eginkizuna emanez.

Epe luzearako helburu hauek lortzeko, erreformak nekazaritzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna izango ditu ardatz, NPBren neurrien norabidea eta eraginkortasuna hobetuz.

Nekazari aktibo kontzeptua elementu berria da eta oinarritzat izango da NPBa hobeto zuzentzen laguntzeko. Ordainketa zuzenak nekazaritza-jarduera minimo bat betetzen dutenei baino ez zaizkie egingo, Europar Batasuneko estatu bakoitzak erabakiko du jarduera horien atalasea. Nekazaritza jarduerarik ez duten lur-jabeek, beraz, ez dute ordainketa zuzenik jasoko.

NPBak lehenengoz sarituko ditu nekazariak, gizarteari osotasunean eskaintzen dizkieten zerbitzu eta **on publikoengatik**: paisaien eta bioaniztasunaren mantenua, klima-aldaketa arintzea eta elikadura-segurtasuna. Dimentsio hori kontuan izan da bai **ordainketa «berde» berrian**, bai nahitaezko baldintzetan, eta baita Landa Garapenerako neurrien zerrenda luzean ere. Neurri horiek, besteak beste, uraren eta energiaren erabilera eraginkorra eta ingurumenarekiko konpromiso sendotuak babesten dituzte.

Aurreko erreformetan bezala, jarraitu egingo da nekazaritza europarraren **merkaturanzko orientabidearekin**: NPBaren tresnen egokitzapenak hareago bultzatuko ditu nekazariak, erabakiak merkatuaren seinaleen arabera hartzera. **Lehiakortasuna** hainbat perspektiba osagarriren bidez sustatuko da:

- Berrikuntza, ezagutzen transmisioa eta kalitatea eta eraginkortasuna hobetzera bideratutako inbertsioen sustapena besteko neurriak indartzea.
- Nekazaritzarako aholkularitza-sistema zabala, formazioa eta esparru berrietako aholkularitza tekniko eskainiko dituen, horien artean ordainketa «berdeak», uraren esparru-zuzentaraua eta pestiziden erabilera jasangarriari buruzko zuzentaraua, edo Landa Garapenerako hainbat neurri.
- Nekazaritza Produktibitatearen eta Garapen Jasangarriaren aldeko Europako Berrikuntza Elkarte berria (EIP AGRI).
- Ekoizleen elkarten eskuduntzak zabaltzeko marko juridikoa indartzea, kooperazioa sustatzeko neurri osagarriak gehituz.
- Arriskuen kudeaketarako eta larrialdi-neurrietarako tresna berriak, horien artean krisialdi-erreserba bat.



NPBak bere ohiko bi zutabeko egitura mantentzen du: Ordainketa Zuzenak eta Landa Garapenerako Politika; Merkatuen Antolakunde Bateratua eta beste legeria horizontal batez gain.

Halere, Europar Batasuneko estatuek inoiz baino aukera eta malgutasun gehiago dute. Lehenengo eta bigarren zutabeak, herrialde nahiz eskualde barruko lehentasunetara egokitu daitezke hein handi batean. Borondatezko neurriak aukeratzeaz gain, Europar Batasuneko estatuek herrialdeko aurrekontuaren %15eraino lekualda dezakete bi zutabeen artean.

Horrela, NPB neurri egindako politika bihurtu da, estatuei nahiz eskualdeei egokitzapen handiak eskaintzen dizkiona. Estatu eta eskualdeen arteko desberdintasunak gutxitzeko, barneko nahiz kanpoko elkarganatze-mekanismoek ordainketa zuenentzako hektarea bakoitzeko minimo nazionala bermatzen dute eta baita ordainketa konbergente eta orekatuagoak ere herrialde eta eskualde mailan.

Bi zutabeen arteko elkarrekintzak eta helburu komunak indartu egingo dira. Bi zutabeek elkarreragina izan dezakete aurrekontu-mailan ere: bien arteko transferentziak egin ahalko dira eta finantzaketa bikoitza saihesteko arauak ere erabil daitezke.

1. Zutabea Ordainketa zuzenak

NAHITAEZKOAK estatu guztietan

- Oinarrizko ordainketa / Lursaileko Ordainketa Bakarra
- Ordainketa «berdea»
- Nekazari gazteak

HAUTAZKOAK estatu araberak

- Ordainketa birbanatua
- Laguntza elkartua
- Zailtasun naturalak
- Nekazari txikiak

2. Zutabea Landa Garapena

25 NEURRI:

- Berrikuntza
- Bideragarritasuna
- Elikagai-katearen antolakuntza
- Kooperazioa
- Arriskuen kudeaketa
- Agroingurumena-klima
- Basogintza
- Nekazaritzakoak ez diren jarduerak
- Oinarrizko zerbitzuak
- ...

Merkatuen Antolakunde Bateratua eta legeria horizontala

- Ekoizpenaren mugak ezabatzea (adibidez, esne-kuotak)
- Merkatuen kudeaketa indartua
- Ekoizleen Elkarreentzako eskumen berriak
- Nekazaritza-Aholkularitza Sistema

I ZUTABEA	Bi zutabeen xede diren jarduerak	II ZUTABEA
Ordainketa berdea	INGURUMENA	Agroingurumena-klima Nekazaritza ekologikoa, Natura 2000
Ordainketa gehigarria	NEKAZARI GAZTEAK	Ustategien garapenerako laguntzak Inbertsiorik handienentzako laguntzak
Ordainketa gehigarria	ZAILTASUN NATURALAK DITUZTEN INGURUAK	Ingururik ahulenei bideratutako ordainketak
Erregimen alternatibo erraztua	NEKAZARI TXIKIAK	Ekoizle elkarreak abiarazteko laguntzak
Marko juridiko hobetua	EKOIZLEEN ARTEKO KOOPERAZIOA	Kooperazioa eta hornikuntza-zirkuitu laburrak



Koordinazioa Europako gainerako politikekin

Landa Garapenerako politikak koordinazio estua izango du aurrerantzean Europako Egitura eta Inbertsio Funtsekin (EEIF), **Europako Marko Estrategiko Bateratu** baten barruan. Koordinazio horrek programa ezberdinen arteko osagarritasuna hobetuko du eta lotura zuzena izango du Europa 2020 Estrategiarekin. Horretarako, Europar Batasuneko estatuak Lankidetzak Akordioak prestatzen ari dira, 2020 Estrategiaren barruan zehaztutako lehentasun komunetan eta helburuetan oinarrituta.

EUROPAKO EGITURA ETA INBERTSIO FUNTSAK

- Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF)
- Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF)
- Europako Gizarte Funtza (EGF)
- Kohesio Funtza
- Itsas eta Arrantzarako Europako Funtza (IAEF)

1. Zutabea: Ordainketa Zuzenak

Europar Batasuneko estatuak inoiz baino malgutasun handiagoa izango dute euren ordainketa zuzenen egitura erabakitzeke. Hainbat aukera izango dituzte eskuragarri ordainketak norbere lehentasunetara egokitzeko, eta ez bakarrik aukeratutako erregimenei dagokienean; baita erregimen bakoitzari esleitutako aurrekontuari dagokienean ere.

Lehenengo zutabe berria nahitaezko erregimen multzo batek eta hainbat hautazko erregimenei osatzen dute.

Ordainketa Zuzen Berriak

Nahitaezko erregimenak:

Application obligatoire dans tous les États membres

Oinarrizko ordainketa (orokorra)

edo **Lursaileko ordainketa bakarra**¹

Ordainketa «berdea» (nahitaezkoa nekazari guztientzat)

Nekazari gazteak (hautagai diren nekazari guztientzat eskuragarri)

Hautazko erregimenak:

Estatu guztiek aukeran izango dituzte

Ordainketa birbanatua

Zailtasun naturalak dituzten inguruak

Laguntza elkartua

Nekazari txikien erregimena (aukerakoa)

Gainerako ordainketa guztiak ordezkatzen ditu

Bi aukera daude NPB berriaren **ordainketa zuzenak** bideratzeko:

- Ordainketa Zuzenen erregimen berria, nahitaezko hiru elementuetan (**Oinarrizko ordainketak**, **«Berdea»** eta **Nekazari gazteak**) eta hautazko hiru erregimenean oinarritua.
- Edo aukeran, Europar Batasuneko estatuak **nekazari txikientzako erregimen erraztua** eskain dezakete, euren borondatez hala hautatzen dutenentzat.

¹ Hautagai diren Europar Batasuneko estatuentzat bakarrik: Bulgaria, Txekiar Errepublikak, Estonia, Zipre, Letonia, Lituania, Hungaria, Errumania, Polonia eta Eslovakia.



Nahitaezko ordainketa zuzenen erregimena



Nahitaezko erregimenak

Oinarrizko ordainketa

Oinarrizko ordainketa aurretik baldintzagainerako erregimenez baliatu ahalizateko da eta **baldintzapekotasunaren** araberakoa da. Bete beharreko baldintzen zerrenda sinplifikatu egin da; baldintzapekotasun sistemaren barruan uraren esparru-zuzentaraua eta pestiziden erabilera jasangarriari buruzko zuzentaraua ere barneratu dira.

Dagoeneko **Lursaileko ordainketa bakarra**² ahalbidetzen duen erregimen erraztua darabilten duten Europar Batasuneko estatuak, 2020ra arte mantendu ahalko dute aukera hori oinarrizko ordainketaren ordean.

Ordainketa berdea

Oinarrizko ordainketaz gain, **ordainketa berdea** esleituko zaie, trukean **nahitaezko hiru nekazaritza-jardunbide** hauek (edota estatu bakoitzak zehaztutako pareko jardunbideak) errespetatzen dituzten nekazari guztiei:

- **Interes ekologikodun lursail bat edukitzea, nekazaritza-lursailaren barruan**

- ▶ Beheko zerrenda honi jarraiki, Europar Batasuneko estatu bakoitzak erabakiko du zer onartuko den interes ekologikodun lursailatzat:

- lugorri utzitako lurak	- nitrogeno-finkatzaile diren landaredun lursailak
- terrazak	- basoak inguratzen dituzten hektarea onargarrien lerroak
- partikulartasunak	- txandakatze laburreko lursail basoberak, ongarri mineralik edota produktu fitofarmazeutikorik erabili gabe landuak
- topografikoak	- haziak erein eta ernetzeko bitarteko laboreak edo babes-laboreak dituzten lurrazalak
- babes lerroak	
- Agrobasogintzarako hektareak	
- lurrazal basotsuak	

- ▶ 15 hektareatik gorako laborantza-lursailen, interes ekologikora zuzenduriko zatiak lursailaren %5 izan behar du gutxienez, eta %7, 2018tik aurrera.
- ▶ Lursailaren zati handi bat lugorri utzita, belardi edota ureztatu beharreko laborantzarako darabilten ustategiak salbuetsita geratuko dira.

- **Laboreen dibertsifikazioa**

- ▶ 10 eta 30 hektarea bitarteko laborantza-lursaila duten ustategiek bi labore ezberdin izan behar dituzte gutxienez eta labore nagusienak ez du lurrazalaren %75 baino gehiago hartuko.



² Bulgaria, Txekiar Errepublika, Zipre, Letonia, Lituania, Hungaria, Errumania, Polonia eta Eslovakia.

- ▶ 30 hektareatik gorako laborantza lursaila duten ustiatuek 3 labore ezberdin izan behar dituzte gutxienez, labore nagusienak ez du lurrazalaren %75 baino gehiago hartuko eta bi labore nagusienek ez dute lursail osoaren %95 baino gehiago hartuko.
- ▶ Salbuetsita geratzen dira zati handi bat, lugorri utzita, belardiz estalita edota ureztatu beharreko laborantzari zuzenduta duten ustiatuek; ustiatuegi espezializatuak eta 62 paralelotik iparralderago dauden ustiatuegiak.

- **Lehendik dauden belardi iraunkorren mantenua**

- ▶ Nahitaezkoa izango da belardi iraunkorren %95 gutxienez mantentzea (herrialde nahiz eskualde mailan kalkulaturik).
- ▶ Debekatuta dago ingurumenaren ikuspuntutik sentikorrek diren belardiak lantzea edota eraldatzea, batez ere Natura 2000 izendaturiko guneak eta Europar Batasuneko estatu bakoitzak zehaztutakoak.

Nekazaritza ekologikoa bateragarria da izatez “ekologizazioak” dituen betebeharrekin. Horregatik, nekazari ekologikoez zuzenean izango dute ordainketa berdea jasotzeko eskubidea. Ordainketa berdeen erregimena ordainketa zuzenen tokiko aurrekontuaren %30era handitu da.

Nekazari gazteak

Nekazari gazteentzako babesa, lehenengo zutabearen eta Landa Garapenerako politikaren artean partekatu da lehenengoz. **Nekazari gazteen aldeko ordainketak** 40 urte arte dituzten³ eta lehenengoz jardungo duten nekazari gazteei eskaintzen dizkie ordainketa zuzenak. Ordainketa hori bigarren zutabeak eskaintzen duen **martxan jartzeko laguntza** batekin osa daiteke.

Hautazko erregimenak

Nahitaezko hiru erregimen horiez gain, Europar Batasuneko estatuak hautazko erregimen bat edo gehiago ezartzeko aukera dute: zailtasun naturalak dituzten inguruentzako ordainketa, laguntza bateratua eta ordainketa birbanatua.

Hautazko ordainketen erregimenak

Zailtasun naturalak dituzten inguruak	<ul style="list-style-type: none"> • muga nazionalaren %5eraino • mendi inguruak eta pareko zailtasun naturalak dituzten inguruak, estatu bakoitzak zehaztu beharrekoak.
Laguntza elkartua	<ul style="list-style-type: none"> • muga nazionalaren %10 edo %15eraino • ingurumenaren, gizartearen edo ekonomiaren intereserako diren labore kalteberentzako bakarrik.
Ordainketa birbanatua	<ul style="list-style-type: none"> • muga nazionalaren %30eraino • gehienez batezbesteko ordainketa zuzenaren %65 • lehenengo 30 hektaretaraino edo estatuaren batezbesteko neurriraino

Zailtasun naturalak dituzten inguruak

Europar Batasuneko estatuak ordainketa gehigarri bat eskain dezakete zailtasun naturalak dituzten inguruentzako, adibidez **mendi inguruentzako**, landa garapeneraren esparruan zehaztutako definizioaren arabera. Ordainketa hori finkoa izango da urtero eta hektarea bakoitzeko, nahiz eta estatuak ustiatuegi bakoitzeko hektarea kopuru maximoa zehaztea erabaki dezaketen, haien arabera laguntza emateko.

Zailtasun naturalak dituzten inguruentzako ordainketen erregimena, estatuak lehenengo zutaberako duen aurrekontuaren %5eraino hel daiteke. Erregimen hori **hautazkoa** eta **bateragarria** da **Landa Garapenerako politikaren** barruko zailtasun naturalak dituzten inguruentzako **laguntzekin**.

³ Nekazariak ezin dute 40 urtetik gora izan lehenengo eskaera egiten duten unean.



Laguntza elkartua

Kaltebera izan daitezkeen laboreen mantenua bermatzeko, Europar Batasuneko estatuek kopuru mugatua duten ordainketa elkartuak eskaini ditzakete, labore jakin batzuentzako.

Laguntza elkartuaren mugak	
Orokorrean:	Aurrekontu nazionalaren %8raino
Jasotako laguntza elkartua %5 baino gehiago bada:	Aurrekontu nazionalaren %13raino. Gehiago, behar bezala justifikatuz gero
Proteaginosoak:	Aurrekontu nazionalaren 2% gehigarria

Ekonomia, gizarte edo ingurumen arazoak direla eta bereziki garrantzitsu diren nekazaritza mota bereziak edo nekazaritza sektore jakinak dituzten eskualde edo sektoreei baino ezingo zaie eskaini laguntza elkartua. Laguntza honek egungo ekoizpen mailari eustea du helburu, ez du inola ere ekoizpen maila hori handituko.

2014tik 2020ra Europar Batasuneko estatuek urtero erabaki ahalko dute erregimen hau aplikatu edo ez.

Laguntza elkartua jaso dezaketen sektore eta ekoizpenak				
Zerealak eta arroza	Esnea eta esnekiak	Oliba-olioa	Azukre-erremolatxa	Lupulua
Olioak	Ardi haragia	Frutak eta barazkiak	Patata fekuludunak	Lihoa
Proteaginosoak	Ahuntz haragia	Fruta azaldunak	Kanabera	Kalamua
Lekadunak	Behi haragia		Txikoria	Zeta-harra
Haziak			Txandakatze laburreko landareak	Bazka idortua

Ordainketa birbanatua

Europar Batasuneko estatuek **ordainketa birbanatua** eskaini dezakete, ordainketa ustiategiaren lehenengo 30 hektareei edo estatuko ustiategiaren batezbesteko neurriari dagokiona izango da. Erregimen hau tamaina txiki edo ertaina duten ustiategiei zuzendurikoa da batik bat. Estatuek urtero erabaki ahalko dute aukera honetaz baliatu edo ez.

Ordainketa birbanatua (eskualdeko edo estatuko) hektarea bakoitzeko batezbesteko ordainketaren %65ekoa izango da gehienez, eta ordainketa zuzenen estatuko aurrekontuaren %30ekoa. Ordainketa mailakatua ere egin daiteke hektarea kopuruaren arabera.

Nekazari txikientzako erregimen erraztua

Nekazari txikientzako erregimena hautazkoa da Europar Batasuneko estatuentzat. Euren kabuz parte hartzen duten nekazariak urtero estatuak zehaztutako 500 eta 1.250 € arteko ordainketa bat jasoko dute, ustiategiaren tamaina kontuan izan gabe. **Nekazari txikientzako erregimenak gainerako ordainketa zuzen guztiak ordezkatzeko dute.**

Erregimen honen onuradunek **baldintzapekotasan exijentzia erraztuak** izango dituzte eta salbuetsita geratuko dira **“ekologizaziozko” jardueretatik**. Ordainketa honek **prozedura administratiboak erraztea** ere badakar, aurrez betetako inprimakiak erabiliko dira eta urteroko kontrol gutxiago izango dituzte, esaterako.



Merkatuen Antolakunde Bateratua


Merkatuen Antolakunde Bateratuko (MAB) arauak aldatzeak Europako nekazaritzaren merkaturanzko orientazioa indartzea du helburu, lehiakortasun globala gero eta handiagoa den testuinguruan, nekazarietzako segurtasun sare eraginkorra eskaintzeaz gain.

MABren elementu berriak bi mailatan sailka daitezke:

- **Aldaketak merkatuaren kudeaketarako mekanismoetan**, horien artean laguntza-erregimenen azterketa eta azukrearen, esnekien eta ardoaren ekoizpen-mugak ezabatzea. **Krisialdirako erreserba** bat eta **larrialdi-neurriak** ere aurreikusten dira, ustekabeko krisiei aurre egiteko.
- **Ekoizleen Elkartek indartzea**, eskumen berriekin eta Landa Garapenak eskaintako finantziazio-neurriek lagunduta.

Merkatuaren kudeaketarako mekanismoak

Erreformatik ekoizpen jakin batzuek dituzten mugak indargabetzea aurreikusten du: esne-kuotak 2015ean desagertuko dira, mahastiak landatzeko eskubideen erregimena erreformatu egin da, eta azukre-kuota 2017an desagertuko da.



MAB berriak 2012ko « Esne Paketeak » nahitaezko hornikuntza-kontratuaren inguruan txertatutako erreformatik, ekoizle-erakunde aitortuen eta euren elkarten negozioz kolektiboa eta lanbideen arteko funtzionamendua barne hartzen ditu:

- **Nahitaezko kontratuak** : MABak esne-hornikuntzak kontratu edo idatzitako eskaintza batek babestuta egon behar duen, eta kontratu edota eskaintzaren barruko arauak zein izango diren erabakitzea ahalbidetzen die Europar Batasuneko estatuei.
- **Negoziatio kolektiboak**: Ekoizleen Erakundeek esne gordinaren hornikuntza-kontratuak kolektiboki negoziatzeko eskumena dute, baldin eta esne gordinaren bolumenak ez badu Europar Batasuneko ekoizpen osoaren %3,5 edo estatuko ekoizpen osoaren %33 gainditzen.
- **Lanbideen arteko erakundeek** esnekien sareko katebegi ezberdinak batzen dituzte. Lanbide arteko erakundeek berrikuntza eta kontsumoa sustatzeko, esportaziorako balizko merkatuak aztertzeko edota kontratu-motak ezartzeko jarduerara ugari abiaraz ditzakete.
- **Eskaintza-erregulazioa gaztarentzat** (jatorri deitura duten edo adierazle geografiko babestua dutenentzat bakarrik): ekoizle elkarteek eta lanbide arteko erakundeek gaztaren eskaintza aldi baterako erregulatzeko eska diezaiokete euren estatuari, baldintza batzuen pean.

Ardo-ekoizpenari dagokionez, baimenentzako araubide bat txertatu da 2016tik aurrerako mahasti landaketa berrientzako. Europar Batasuneko estatuek euren lurraldean landatutako mahastien %1aren pareko landaketentzako baimenak jarriko dituzte eskuragarri, aurreko urteko uztailaren 31n egindako neurketen arabera.

Esku-hartze publikorako eta biltegiatze pribaturako laguntzetarako sistemak aldatu egin dira, errektiboago eta eraginkorrago bihurtu daitezke, dagokien produktuen ekoizpen kostuak kontuan hartuz, adibidez.



Esku-hartze publikoa jaso dezaketen produktuak		Biltegiatze pribaturako laguntza jaso dezaketen produktuak	
gari zuri biguna	arroz azalduna	azukre zuria	gaztak
gari zuri gogorra	behi-haragia	oliba olioia	esne-hauts gaingabetua
garagarra	gurina	liho zuntzak	txerri-haragia
artoa	esne-hauts gaingabetua	behi-haragia	ardi eta ahuntz-haragia
		gurina	

Eskoletako fruta eta barazkien kontsumoaren aldeko programa eta eskoletako esnearen kontsumoaren aldeko programa zabaldu egingo dira. Fruta eta barazkien aldeko programarentzako aurrekontua handitu egin da, urte bakoitzeko 90 milioi eurotik 150 milioira.

Horrez gain, **babes-klausula berriak txertatu dira** sektore guztientzat, merkatuan nahasmendu orokorrik gertatuko litzatekeen kasuan, Batzordeak **larrialdi-neurriak** hartzeko aukera izan dezan, abeltzaintzako epidemia baten eraginez, produktu jakin batzuen kontsumoaren gainbehera orokorra, adibidez. Ordainketa zuzenetan egindako murrizketa bati esker, 400 milioiko krisialdi-erreserba berria izango da urtero, larrialdi neurri horiek finantzatzeko. Krisialdi-neurrietan erabili ez diren funtsak nekazariei itzuliko zaizkie, ondorengo ekitaldian.

Azkenik, erabili ez diren edota gutxi erabilitako erregimen kopuru jakin bat ezabatu egin da (esne-hauts gaingabetua abereentzako elikagai gisa erabiltzeari zuzendutakoa, esaterako) erregimenak sinplifikatu eta merkaturantz zuzentzeko.

Ekoizleen arteko kooperazioa

Sektore jakin batzuen esperientziatik abiatuta, esnearen eta fruta eta barazkien kasua besteak beste, Ekoizleen Erakundeak (EEak), euren elkarteak (EEEak) eta Lanbide Arteko Erakundeak sektore guztietara zabaldu dira, eskumen handiagoekin :

- **Negoiazio kolektiboa:** esne eta esnekiez gain, Ekoizleen Erakundeek elkarrekin negozia ditzakete **behi haragiaren, oliba olioaren, zerealen eta bestelako laboreen** hornikuntza kontratuak, baldin eta negoziazio hori herrialdeko ekoizpen osoaren %15etik gorakoa ez bada.
- **Hornikuntza kontratuak :** aurrerantzean EEek, EEEek, eta Lanbide Arteko Erakundeek sektore guztietan zehatz ditzakete hornikuntza-kontratuak.
- **Aldi baterako neurri kolektiboak:** merkatuetan nahasmen handiak dauden kasuetan, Batzordeak aldi baterako neurri kolektiboak hartzea baimen diezaike EEei, salgaiak merkatutik kentzea, edota bitartekari pribatuen biltegiatzea, dagokion sektore egonkortzeko.

Gainera, EEek beste hainbat zeregin ere bete ditzakete euren kideentzat: ekoizpenaren planifikazioa, komertzializazioa, ikerketa eta berrikuntza, baliabide eta hondakinen kudeaketa edota laguntza teknikoaren inguruan. Bigarren zutabeak finantziario aukera ugari eskaintzen ditu ekoizleen elkarteentzat eta euren arteko kooperazioarentzat.


2. Zutabea: Landa Garapenerako Politika

Landa Garapenerako politika berriak lehengo egitura orokor bera mantentzen du. Europar Batasuneko estatuek urte anitzetarako programak ezarriko dituzte euren landa inguruen beharren arabera, sei lehentasun orokorren hauen inguruan:

Landa Garapenerako aurrekontu nazionalaren %30 eskainiko zaio gutxienez, «ekologizazioari» edota «berdetzeari» (agroingurumen-klima eta basogintzarako neurriak, energia-eraginkortasuna hobetzeko inbertsioak edo klima-aldaketaren kontrako borroka, nekazaritza ekologikoa eta Natura 2000) eta %5 gutxienez **LEADER ikuspuntuari**.



Landa Garapenaren Lehentasunak



Europar Batasuneko estatuek ondorengo gai hauei jarraiki hautatuko dituzte Landa Garapenerako Programak ezartzeko neurriak:

- **Berrikuntza eta ezagutzen transmisioa:** esparru hauek indartu egingo dira, «ezagutzaren transmisioa», «kooperazioa» eta «inbertsio fisikoak» gisako neurriekin. Are zehatzago, **Nekazaritarako Produktibitatearen eta Garapen Jasangarriaren aldeko Europako Berrikuntza Elkarte** berria (EIP AGRI) arduratuko da baliabideen erabilera eraginkorra, produktibitatea, eta negutegi-efektua sortzen duten gasen isurketa murriztuak dituzten eta klima-aldaketara egokitzeko gai diren nekazaritza eta basogintzaren garapena sustatzeaz. EIP AGRI elkarteak nekazaritzaren eta ikerketaren arteko kooperazioa indartuko du, teknologia ahalik eta arinen nekazarien eskuetan jartzeko. **Nekazaritza aholkularitza** sistema indartu eta ingurumenaren erronketara, klima-aldaketara, garapen ekonomikora eta formaziora lotuko da.
- **Kalitatea eta lehiakortasuna:** aukera zabala eskaintzen da kalitate-programetako parte-hartzea, enpresen garapena, inbertsioak eta nekazaritza-ustiategien berregituraketak bultzatzeko.
- **Nekazari gazteak** neurri kopuru jakin batez balia daitezke, horien artean: enpresa martxan jartzeko 70.000 €-rainoko laguntzak, inbertsio fisikoa, formazioa eta aholkularitza.
- **Ustiategi txikiak** ere balia daitezke enpresak martxan jartzeko laguntzez, ustiategi bakoitzeko 15.000 €-raino.
- **Kooperazioa eta elikagai-katearen antolaketa** indartu egingo dira, enpresa-planean oinarritutako eta ETE gisa onarturiko erakundeei bakarrik zuzenduriko ekoizle-elkarteak sortzeko babesaren bidez. Kooperazio teknologikoa, komertziala eta ingurumenari loturikoa sustatzeko aukera ugari daude eskuragarri, horien artean proiektu pilotuak edota zirkuitu laburren eta tokiko merkatuen garapena. Ahalbidetu egin da, halaber, eskualde edota estatu ezberdinetako ekoizleen arteko kooperazioa.
- **Arriskuen kudeaketarako tresnak:** aseguru eta mutualizazio-funtsak zabaldu eta aurrerantzean diru-sarrerak egonkortzeko aukera bat ere babestuko dute, urteroko batezbesteko sarreraren %30etik gorako beherakadarik dagoen kasurako.
- **Mendi inguruak:** mendi inguruetakoko eta 62 paralelotik iparralderago dauden inguruetakoko, laguntza hektareako 450 €-rainokoa izango da (lehen hektarea bakoitzeko maximoa 250 €-koa zen).
- **Klima-aldaketa eta ingurumena:** NPB berriaren dimentsio «berdeak» neurri ugari biltzen ditu, horien artean **agroingurumen-klima** ordainketak (nahitaezko baldintzapekotasuna baino konpromiso handiagoa, Europar Batasuneko estatu bakoitzak zehaztuko duena), nekazaritza ekologikoa, Natura 2000 eta uraren esparru-zuzentzarauari lotutako ordainketak, eta baita bestelako neurri batzuk ere, uraren eta energiaren erabilera eraginkorra hobetzera zuzenduriko inbertsioen babesa, besteak beste.
- **Basogintza:** basoen garapena, nekazaritza eta basogintza sistemak, erresilientzia eta ingurumenaren balioa, eta teknologian, eraldaketan, nahiz komertzializazioan egindako inbertsioak babesteko neurri gehiago izango dira eskuragarri.
- **Nekazaritza kanpoko jarduerak**, inbertsioak eta zerbitzuak: eskuragarri jarriko dira mikro-enpresak eta enpresa txikiak abiarazi eta garatzeko laguntzak, eta baita abiada azkarra eta energia berriztagarrien gisako azpiegiturarako inbertsioak barne hartzen dituzten **oinarrizko zerbitzuentzako eta herrixken berrikuntzetarako** laguntzak ere.
- **LEADER:** malgutasun handiagoa adostu da bestelako funtsak tokiko mailan erabiltzeko, herri eta landa inguruen kooperazioa horien artean; izan ere LEADER ikuspuntu bateratua erabiliko da gainerako Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetako hurbileko tokiko garapenerako. LEADER ikuspunturako laguntzek, «LEADER martxan jartzeko kit» bat barne hartuko dute, aurreko 2007-2013 aldian ikuspuntu hau martxan jarri ez duten tokiko komunitateentzat.

www.euromontana.org



EUROMONTANA

Euromontana mendi inguruen garapen eta kooperaziorako Europako Elkarte sektore-anitza da. Europako hainbat herrialdetako nahiz eskualdetako erakundeak biltzen ditu: eskualde garapenerako agentziak, lurraldeetako gizataldeak, nekazari elkarteak, ingurumen agentziak, basogintza-elkarteak, eta ikerketa institutuak.

Euromontanaren misioa, mendi biziak sustatzea da, garapen global eta jasangarriaren alde lan eginez eta bizi-kalitatea hobetuz.

Proiektu hau elkarte hauen lankidetzari esker burutu da:



Asociatia AGROM-RO (Errumania)
www.agromro.ro



University of Maribor – Faculty of Agriculture and Life Sciences (Eslovenia)
www.um.si/en



Ente Regionale per i Servizi all'Agricoltura e alle Foreste (Italia)
www.ersaf.lombardia.it



Association pour le Développement Economique et Territorial Durable du Massif Central MACÉO (Frantzia)
www.maceo.pro



Istituto Politécnico de Bragança (Portugal)
www.ipb.pt
www.cimo.esa.ipb.pt



HAZI Fundazioa
www.hazi.eus
Eusko Jauriaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza



Informazio jarduera hau Europako Batzordearen babesarekin finantzatu da.

Informazio gehiago: www.newcapmountain.eu



NPB berria, hainbat eta hainbat aukera



NPB Mendiak

